

# Ekonomiaren KZ

Fuskal Ekonomiaren Kazeta

18. alea • 2010eko Urtarrila-Martxoa • Doaneko Alea • Hirugarren Urtea • Harpidetzak: 944213031 • Lege Gordailua: BI - 0371 - 08

Orain ere Interneten: [www.ekonomiarenkz.eu](http://www.ekonomiarenkz.eu) // [ekonomiarenkz.wordpress.com](http://ekonomiarenkz.wordpress.com)

ELKARRIZKETA



**Alberto García Erauzkin**  
Euskalteko aholkulari zuzendari orokorra

"Zuntz optikoa Euskaltelek merkatuari eskaintzen dion sinbolorik adierazgarriena da"

12. orrialdea



**Markel Olano**  
Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusia

"Aurten hazkunde maila motela izango dugu"

16. orrialdea

## Euskal kontsumitzaileen mesfidantzak gora egin du



Euskal kontsumitzaileek oso argi dute zein den gehien kezkatzen dituen gaia; langabezia, hain zuzen ere. Gainera, otsaileko datuen arabera, langabeziak gora egiten jarraitzen du Euskal Herrian. Gauzak horrela, Euskadiko eta Nafarroako Aurrezki Kutxen Federazioak egindako inkestaren arabera, euskal kontsumitzaileen mesfidantza gero eta handiagoa da. Dena den, Euskadiko indizea Espainiako eta EBko datuetatik nahiko hurbil dago.

10-11. orrialdea

## Eroski taldeak bilakaera negatiboa izan du 2009an



Eroskiren emaitzak ez dira baikorrerik izan, joan den urtearen itxieran zorrak izan ditu, baina berandu izan baino lehenago enpresak lortu du zorra arintzea, zorraren ordainketa atzeratu duelako. Bestalde, ia urtebeteko negoziazioen ostean akordioa lortu du 23 finantza erakunderekin.

8. orrialdea

## Tobin zerga ezartzearen eztabaidaren itzulera

Nahiz eta hasiera batean Tobin zergaren aldarrikapena ezkerreko taldeekin lotura handia izan, urteak pasa ahala gero eta mugimendu gehiago batzen dira zerga honen ezartzearen alde atxatzeko. Ekonomilari eta politikari askok aplikazioaren alde egiten dute munduko ekonomia berpizteko xedearrekin.



13. orrialdea

### XI JORNADAS SOBRE TRANSPORTE XI. GARRAIOARI BURUZKO JARDUNALDIAK

Día 27 de abril de 2010  
2010eko apirilaren 27a



Archivo Foral,  
C/ María Díaz de Haro 11

### XII JORNADAS DE EMPRENEDORES EKINTZAILEEN XII. JARDUNALDIAK

Día 3 de mayo de 2010  
2010eko maiatzaren 3a

Lan Ekintza,  
C/ Uribitarte 6. BILBAO.

INSCRIPCIÓN GRATUITA  
DOANeko IZENEMATEA



Izenematea eta informazio gehiago:  
94421.30.31 telefonora deituz  
edo [www.leizaola.org](http://www.leizaola.org) webgunean

Más Información e Inscripciones:  
en el Teléfono 94421.30.31  
o en la web: [www.leizaola.org](http://www.leizaola.org)

AYUNTAMIENTO DE BILBAO

Bilbao

metro bilbao

AYUNTAMIENTO DE BILBAO

Dela

Gasto ON KZ

SAIZBURU

Zentru bakoitzaren konbalidazio komisioren baitan UPV/EHUko ikasleek **kreditu bat(1)** eskura dezakete  
Los estudiantes de la UPV/EHU pueden obtener **1 crédito convalidable** por participar en esta actividad

## ANTOLATZAILEAK:



KULTURA SAILAK  
(KULTURA SAILA HIZKUNTZA  
POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)  
DIRUZ LAGUNDUTAKO



## ELKARLANEAN:

ADITUAREN  
IRITZIA

Joseba Villarreal

ELAko Negoziazio  
Kolektiboaren  
arduraduna

Sindikatuaren arteko  
harremanak

Gure harremana gainontzeko sindikatuekin urria dela esango nuke; egia da harreman eksklusiboa daukagula LABekin, hainbat ekimenetarako batzen baikara. Esaterako, maiatzaren 21eko greban edo orain ere dekalogo bat eratu dugu beste talde batzuekin batera.

Izan ere, talde guztiak ados jartzea erabaki guztietan ez dakit beharrezkoa izango den ala ez, baina interesgarria ziur baietz. Hala eta guztiz ere, ezinezkoa da guztiok bat egitea ideia guztietan, bizitzaren edozein arlotan gauza bera gertatzen baita, alderdi politikoekin, adibidez. Baina jendeak beti sindikatuei botatzen die errua.

ELAren kasuan, une honetan gehien kezkatzen gaituen gaia, zalantzarik gabe, langilearen egoerak, langabeziaren garapenak eta lan-baldintzak beharrezko botatzeko patronala administrazioaren laguntzarekin ematen ari den erasoari aurre egitea da. Egia esanda, horiek dira gure lehentasun bakarrak.

## GORA

## Telefonicaren etekin garbia %2,4 igo zen 2009an

Cesar Aliertak buru den enpresaren irabaziak 56.731 milioi eurokoak izan ziren 2009an, aurreko urtean baino %2,1 gutxiago. Konpainiak ezagutzera eman zuen datuak ez direla ezkorrak krisialdiaren garaia kontuan hartuz eta 2008an Airwaveren eta Sogecableren salmentek positiboak izan zirelako.

Bestalde, merkatuaren aktibitateari dagokionez, 2009. urtean Telefonikak bere sarbide kopurua %5,1 igo egin zuen aurreko urtearekin alderatuz. Hazkunde honen arrazoi nagusiak hurrengo hauek izan ziren: telefono mugikorren sarbidearen hedapena (%7,4), banda-zabal finkoa (%8,2) eta ordainketa bidezko telebista (%9,8). Gauzak horrela, joan den ekitaldiaren azken hiru hilabeteetan zehar, konpainiak %22,2ko igoera jasan izan zuen bere etekin garbian, 2.440 milioi eurotara iritsi arte.

Era berean, Telefonikako arduradunek baieztatu zuten prentsaurreko batean, herrialdeko sektoreko lidergoa haiek mantentzen dutela.



Cesar Alierta, Telefonikako presidentea

## BEHERA

## Gamesak Altsasuako lantegia ixten du


Krisialdi ekonomikoak biktimak izaten jarraitzen du, kasu honetan Gamesako lantegi bat izan da, Altsasuakoa hain zuzen ere. Arrazoiak nagusia Europako eskaeraren jaitsiera izan da; horregatik enpresak hainbat murrizketa aurrera eraman behar izan ditu plantillan.

Dena den, itxitako lantegi bakarra ez da Altsasuakoa izan, gamesak ere beste lau planta gehiago itxi ditu, 362 langileekin guztira. Hala eta guztiz ere, Altsasuan dagoen lantegian ekoizten diren aerosorgailuen palek ez dute irteerarik, hori dela eta, hango enpresa osoarekin bukatzea erabaki dute, horrek 150 beharginen kaleratzea dakar. Bestalde, aerosorgailu horiek lantzen zizuten langileek ezin izango dute Gamesan lan egiten jarraitu, produktu horren emaitzak ahulak baitziren eta ia ez zeukan merkaturik. Horretaz gainera, plantak ez da bihurtuko beste enpresa batean (zerbtzu desberdina eskainiz), bere tamaina murrizta delako, beraz, bere itxiera justifikatua dago.



Gamesak fabrikatutako haize-errotak

## KOMIKI



www.blazquezcobo.blogspot.com

## STAFF:

**HARREMANETARAKO TELEFONOA:** 94 421 30 31  
**WEBGUNE:** www.ekonomiarenkz.eu  
**BLOG:** ekonomiarenkz.wordpress.com  
**POSTA ELEKTRONIKOA:** info@ekonomiarenkz.eu  
**POSTA HELBIDE:** 612 Posta Kutxatila, 48080 Bilbo  
**EUSKARAREN ARDURADUNA:** Labayru Ikastegia  
**EGILEA:** Leizaola Elkarte  
**HARPIDETZAK:** 94 421 30 31 telefonoan.

## Egin zaitez harpide!

Ekonomiaren KZ etxean hilero doan jaso nahi baduzu, bidal ezazu ondorengo kupola honako helbidera:

• 612 Posta Kutxatila, 48080 Bilbo,  
edo idatz ezazu info@ekonomiarenkz.eu posta helbidera,  
zure izen-deiturak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa adieraziz.

ABIZENAK: \_\_\_\_\_ IZENA: \_\_\_\_\_  
HELBIDEA: \_\_\_\_\_  
TELEFONOA: \_\_\_\_\_ E-MAIL: \_\_\_\_\_  
HERRIA: \_\_\_\_\_ P.K.: \_\_\_\_\_

## ALBISTEAK

# Jaurlaritzak erregulazio espedienteen eskaerak luzatzeari garrantzia kendu dio

Eusko Jaurlaritzak enpleguaren inguruko erregulazio espedienteen eskaerak luzatzeari garrantzia kendu dio. Euskal Autonomi Erki-degoko (EAE) hiru lurralde historikoetan indarrean zeuden erregulazio eskaerak luzatzea erabaki dute, hau da, 584 enpresak dosierra berri egin dute.

Guztira, bigarren dosier baten menpe dauden langileak 16.000 dira; gauzak horrela, aurreko erregulazioa dutenen kopurua gaitu dute. Orokorrean, aurtengo lehen bi hilabeteetan onartu diren eskaeren erdia luzapenak izan dira.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuordeak, Carlos Zapaterok, aurrera eramandako azkenengo txanda horretan ere txosten gehienak behin-behinekoak direla argitu zuen. "Askok krisialdiaren amaiera gertu dagoela susmatzen dutenez, enpresak ez dira arriskatu nahi eta era berean



Carlos Zapatero, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuordea

euren eskulana galdu", gaineratu zuen Zapaterok. Horretaz gainera, sailburuordeak ere komentatu zuen enpresa gehienek ez dutela egiturazko arazorik.

lido berari jarraituz, krisiaren irteera nolako izango den galderari, Enplegu

eta Gizarte Gaietako sailburuordeak azpimarratu zuen urteko lehenengo erdia igaro arte ezingo dela ezer ziurtatu, "itxaropena beti izan behar dugu, baina momentuz ez ditugu gertaerak aurreratuko behar, hori da behintzat enpresako ardura-

dunek esaten digutena", jarraitu zuen Carlos Zapaterok.

## Dosierren azkenengo emaitzak

Gaur egun 1.378 erregulazio eskaera daude indarrean, hots, Jaurlaritzak ia 1.400

txostenei aurrera egiteko baimena eman die. Berriz, krisia hasi zenetik 937 enpresak ez dituzte dosierrik berri.

**16.000 langile daude bigarren dosierren menpe**

Langileei dagokienez, guztira, EAEko 31.000 behar-ginek jarraitzen dute erregulazio hauen eraginpean; hori dela eta, 2010. urteko urtarrilean eta otsailean iaz baino 82 txosten gehiago baimendu ditu Lan Agintaritzak. Izan ere, kontuan izan behar dugu joan den urteko otsailean Mercedes-Benz enpresak 4.500 langileengan eragina izan zuen dosierra aurrera eraman zuela.

Hortaz, "hasierako eskaera egin duten enpresak %40 gutxiago izan dira, horrek erakusten du eskaera berrien errotmoa moteltzen ari dela", adierazi zuen sailburuordeak.

# Txinako BPGk %8ko hazkundea izango du aurreikuspenen arabera



Wen Jiabao, Txinako lehen ministroa

Krisialdi ekonomikoak munduko herrialde gehienetan eragina izaten jarraitzen du; hala ere, Txinan atzeraldi hau ez da gogor

azaldu, horregatik aurten bere Barne Produktu Gordina %8 haziko dela aurreikusuten dute Txinako ekonomilariek.

Dena dela, joan den urteko emaitza ekonomikoak ez ziren batere negatiboak izan, asiar herrialdeko BPGk %8,7ko hazkundea izan baitzuen. Hortaz, Wen Jiabao Txinako lehen ministroak ziurtatu du 2010ean antzeko datuak lortuko dituztela.

## KPIren iragarpenak

Txinako lehen ministroak ezagutzera eman dituen

aurreikuspenetan argi utzi du urte honetan zehar hainbat sektoreen hobe-

**Merkatuko diru ibilkorra %17 igoko da**

kuntzan eta garapenean zentratuko direla, batez ere, ingurugiroan eta inflazioaren eragozpenean. "Gure helburuen artean aurkitzen da Kontsumoko

Prezioen Indizea (KPI) %3 inguruan mantentzea", gaineratu du Jiabaok.

Merkatuko diru ibilkorra %17 igoko da iragarpenen arabera. "Sektore bereizi batzuetako kredituen emateak gertuz kontrolatzen jarraituko ditugu, esaterako, kontsumo energetiko edo ekoizpen ahalmen handia duten sektoreetan", argitu zuen Jiabaok.

## Txanponaren gorabeherak

Yuan monetari dagokionez, Wen Jiabaok komen-

tatu du txanponaren politika zuzurrarekin aurrera jarraituko duela, "emaitza baikorrak eman dituelako".

Enpresa ertain eta txikiek Gobernuaren laguntza ere jasoko dituzte, 10.600 milioi yuaneko diru-laguntzak hain zuzen ere (1.140 milioi euro); bestalde, langabeziaren errotmoa eta enplegu berriak sortzeko 43.300 milioi yuan igorriko dira (4.660 milioi euro, hain zuzen); azkenik, nekazal ekoizpenari bideratuko den diru-laguntza 133.500 milioi yuanezko izango da, hots, 14.300 milioi euro.

## ALBISTEAK

# Enpresa berrien sorkuntzak %33ko murrizketa izan du EAEn

Krisialdi ekonomikoak eragina izan du enpresa berrien sorkuntzan; hutsune ekonomiko negatiboa izan da ekintzaileentzat, eta euren inbertsioak arriskuan ez jartzeagatik, nahiago izan dute enpresa

aurreko urteko datuekin alderatuz; EAEn sortutako erakunde edo entitateen kopurua 2.239koa izan zen, hau da, 2008ko epe berean baino %33 gutxiago, hain zuzen ere.

Nahiz eta joan den urtean eraturako enpresen kopurua nabarmen murriztu, Aldi Baterako Enpresa Handien Erakundearen (Abehe) arabera, EAEko emaitzek kutsu positiboa ere badute; krisia kontuan izanik, Euskadi Estatu osoko autonomia erkidegorik sendoena izan da, hots, enpresa kopuru gutxien deuseztatu dituen lurraldea izan da, %2,8ko jaitzierarekin urte batetik bestera.

## Estatuko iparraldean emaitzak positiboagoak dira

Abehe-ren ikerketak erakusten du Murtzia eta Va-



Egoera honek enpleguaren sorkuntza oztopatzen du

lentiako erkidegoak izan direla azken urte honetan enpresa gehien deuseztatu dituzten lurraldeak. Txanponaren bestaldean, espainiar Estatuko iparraldeko erkidegoak daude, bereiziki, Asturias, EAE eta

Galizia, bai eta Balearrak ere; horiek izan dira, hain zuzen ere, 2009. urtean enpresak eritmo geldoagoan deuseztatu dituzten lurraldeak.

Dena den, daturik negatiboena itxi diren enpre-

sen kopuruarena izan da; krisia hasi zenetik, 2007ko irail inguruan, 127.000 entitate itxi dira Estatuan. Horien arteko %64,2 ETEak izan dira, hau da, krisialdiaren alderik latzena pairatu dutenak. Hori dela eta, atzerapen honek due-la bost urte zegoen egoera berean kokatzen du Estatu, eta enpleguaren sorkuntza eragozten du, Abehe-ren arabera.

## Bizkaiko murrizketa nabaria

Bizkaiko lurralde historikoari dagokionez, Bilboko Merkataritza Ganberaren arabera, enpresen sorkuntza eta ekimen ekintzaileen bilakaera geldoagoa izan da azken urtean. Zehatz-mehatz, 2009an 1.380 entitate eratu dira; aldiz, aurreko urtean 2.105 izan ziren, hau da, aurreko %34 gutxiago eratu dira.

edo negozio berriak ez sortzea. Hori dela eta, Bilboko Merkataritza Ganberaren datuen arabera, 2009. urtea oso negatiboa izan da ekintzaile berrien kopuruari dagokionez; Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) sortutako ETEen kopurua nabarmen jaitsi da,

Sortutako ETEen kopurua nabarmen jaitsi da

# Otsailean langabeziak hazten jarraitzen du, baina urtarrilean baino askoz gutxiago

Langabeziari dagokionez, aurtengo urtarrila oso negatiboa izan da, krisialdia hasi zenetik hilabeteriktarrena izan zela esan genezake, horregatik otsailako emaitzak

bitartean, 2010eko lehenengo hilabetean 10.111 pertsona geratu ziren lanik gabe, hau da, aldaketa guztiz nabarmena. Guztira, 180.913 pertsona daude INEMaren zerrendan, biztanleriaren aktiboaren %13,36 hain zuzen ere.

## Gipuzkoan langabe gehiago

Euskadiko hiru lurralde historikoak kontutan hartuta, otsailean Gipuzkoa izan da non langabezia gehien igo den lurraldea; zehatz-mehatz, aurreko hilean baino 549 langabe gehiago izan baitira, hots, %19,71 puntu handitu da

langabezia bertan. Izan ere, gainontzeko lurraldeak ez dira oso urrun geratu, bere emaitzak antzekoak izanik. Bestalde, langabezia tasarik handiena Nafarroak izan du (%14,15).

## Jarrerak eta ondorioak

Eusko Jaurlaritzaren balorazioa, datuak ezagutu ondoren, positiboa izan da. Haien ustez, nahiz eta langabeziak gora jarraitu, erritmoa moteldu egin da. Ildo berari jarraituz, Idoia Mendia Jaurlaritzako bozeramailearen esanetan, langabeziak jarraitzen du oraindik Gobernuaren kezka nagusia izaten.



INEMeko zerrenda gero eta gehiago loditzen ari da

Beste alde batetik, enplegua erregulatzeko espedienteen kasuan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 216 txosten onartu ziren guztira urtarrilean, hots, joan den urteko epe berean baino %29,3 gehiago. Baimenduta-

ko espedienteen 133 Gipuzkoako enpresek aurkeztu zituzten; 60 Bizkaikoek, eta 23 Arabakoek, hau da, guztira ia 4.000 lagun geratu dira enplegurik gabe, gehienak kontratua aldi baterako eteteko izan dira.

Langabezia zerbitzu sektorean gehiago nabari egin da

pozgarriak izan dira. Oro har, urtarrilean baino askoz jende gutxiago geratu da lanik gabe; joan den hilean 1.948 langabe gehiago egin ziren

## ALBISTEAK

# ELA sindikatua kontseilutik kanpo geratu da erreformen ondorioz

Urte honetarako, Eusko Jaurilaritzak Lan Harremanen Kontseiluan (LHK) eraldaketa edo erreforma sakona aurrera eramatea erabaki du; dena dela, Confebask patronalak beto eskubidea izaten jarraituko duela ziurtatu egin du Gemma zabaleta sailburuak. Beraz, patronalaren jarrera eta iritzia ezinbestekoa izango da edozein txosten edo lanbide arteko akordio onartzeko.

Aldaketa ez dira soilik LHKn emango, Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak



Zabaletaren ustez erreformak beharrezkoak dira

goa izatea bi taldeetan (bai patronalan, baita sindikatuetan ere); horregatik, Zabaleta proposatu du gehiago soilik nahikoa izan behar litekeela.

Bestalde, ELA sindikatua uko egin dio organoan parte hartzeari eta bere hiru eserlekuak hutsik geratu dira denbora batez, baina azkar beste hiru sindikatuak bana eskaini zitzaizkien; kasu honetan, soilik CCOO eta UGT hartu zituzten, LABek ere uko egin baitzuen.

## Administrazioaren parte-hartzea

Beste aldaketa batzuen artean, Zabaletak egindako beste proposamen bat izan da administrazioa ere LHKn aritzea, hau da, kontseiluan hiru talde egongo lirake: patronala, sindikatuak eta gizarte erakundeak edo administrazioa. Kasu honetan, ELAk eta LABek erabaki dute parte-hartzerik ez izatea, "elkarriketa horiek patronalaren mesedera egiten direlako" haien ustez.

Halere, Jaurilaritzak aztertuko du kide kopurua handitzeko eta bestelako erakunde batzuei sarbidea emateko aukera.

## ELAk uko egin dio organoan parte hartzeari

(KES) ere erreforma antzatzak izango ditu Jaurilaritzaren aburuz, eta eraldaketa horiek eragin handia izango dute LHK eta KESen egituretan, boto sisteman, besteak beste. Era berean, Zabaletak defendatu du bi kontseilu hauek egokitzeko momentua ailegatu dela eta egin beharreko lana dela ziurtatu du.

## Tirabirak botoen gehiengoarekin

Enpresaburuek eta sindikatuek, LHKren aldaketak aurrera eraman ondoren, jarraitzen parte-hartzen jarraituko lukete; baina erabakiak hartzeko orduan, Eusko Jaurilaritzak erreformak izan nahi ditu. Haietariko bat txostenen onarpenarekin lotura zuzena du, egun ezinbestekoa baita botoen gehien-



EAEko soldatak bere horretan geratu dira

# Euskadiko soldatak Estatuko altuenak dira, baina ez dute gora egiten

EAEko soldatek Estatuko altuenak izaten jarraitzen dute, baina, krisialdiarekin batera, azkenaldi honetan gehien moteldu edo gutxien hazi direnak ere izan dira. Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) txostenaren arabera, 2009ko hirugarren hiruhilekoan, Euskadiko batez besteko soldata gordina 2.123,87 eurokoa zen, hau da, 1.630 euro hiler, zergak kenduta.

Era berean, euskal herri-tarren lansaria, Estatuko gainerako lurraldeetako biztanleriarenarekin alderatuz, altuagoa da; izan ere, Estatuko batez bestekoa 1.776,25 eurokoa da (hileko soldata gordina). Bestalde, lan-kostuak murriztu dituzten enpresak ere egon badaude, batez ere lanpostuak gutxitu dituztelako.

## Enpresek hartutako neurriak

Eragin handia izan duten beste erabaki enpresarial batzuk Enplegu Erregulazio Espedienteak (EEE) edo lanegunetako orduen murrizketa izan dira. Bi tresna edo erabaki mota horiek oso erabiliak izan dira azken

urte honetan, eta malgutasun handia eman diete enpresariei, euren lana eta ekoizpena aurrera eraman ahal izateko.

Oro har, 2009ko lehenengo hiruhilekoan, langile bakoitzak sei ordu eta erdi egiten zituen egunero batez beste, lau eta zortzi ordu egiten zituzten langileak kontuan hartuta. Irailean

**EAEko langileen soldata 2.124 eurokoa da**

jasandako murrizketa ordu batekoa izan da, baina beherakada horrek lanaldi osoa izan duten langileengan izan du eragina gehienbat. Aitzitik, lanaldi osoa ez dutenei dagokienez, ez da ia aldaketarik izan.

Doikuntza edo aldaketa hauetariko gehienak industria sektorean egin dira, batez ere EEE eta lanorduen murrizketen kasuetan; hain zuzen ere,

hilabete eta behargin bakoitzeko hogeitau ordu murriztu dira. Aitzitik, erakuntza sektorean ere mota bereko mozketak izan dira, baina, kasu honetan, 13 ordukoak izan dira. Zerbitzuen sektoreari dagokionez, kontuan izanik EINKoek ikertutako epea udako oportetako garaia izan dela, zortzi orduko murrizketak izan ditu soilik.

## Gazteen langabezia

Joan den urteko lehenengo seihilabetean etxebizitzaren prezioen eta interes tipoen beherakada nabaria izan arren, langile gazte batek zail izango luke etxe bat erostea; izan ere, horretarako, bere soldata osoaren %62,4 aurreztu beharko luke, hori soilik hipotekaren hasierako ordainketari aurre egiteko.

Horretaz gainera, etxebizitzaren libre baten erosketaren finantzatzeko beharrezko den gutxieneko sarrera 31.266,02 eurokoa da urtean, hau da, langile gazte batek urtean irabazten duenaren bikoitza (batez besteko soldata 15.042,21 eurokoa dela kontuan izanik).

## I+G+i ALBISTEAK



Gipuzkoa Berritzen izan da, Innobasquerekin batera, ekimenaren sustatzailea

I+G delakoan eta teknologian adituak diren enpresak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira edozein merkatutan, eta etorkizunari begira lehia-

kortasun handia bermatzen dute. Hori guztia oso argi dute Euskadiko enpresek, eta, hori dela eta, Europako sendoenen artean daude.

Joan den hilabetean argitaratutako ikerketaren arabera, I+G delakoarekin lotura duten Europar Batasuneko mila enpresarik sendoenen artean sei euskal enpresa daude, joan den urtean baino talde bat

gehiago, CAF gipuzkoarrari esker. Enpresa horien guztien artean, 228,66 milioi euro inbertitu zituzten proiektu berritzaileetan, hau da, 2007an baino %27 gehiago.

### Euskal enpresen posizioa

Euskadiko enpresen kasuan, Iberdrola lehenengo postuan dago, eta ITP hirugarren posizioan. Bi talde

horien artean Fagor dago, 56 milioi euro gastatu baititu azken urtean (Estatuan 8. postuan dago, eta European, berriz, 267.ean).

I+Gekin konpromiso garbia hartu duen beste enpresa bat Gamesa da; parke eolikoen eraikuntzan aditua den talde honek 32 milioi euro baino pixka bat gehiago gastatu ditu, hau da, 2007an baino %3,7 gehiago. Hala eta

guztiz ere, Estatuko enpresen artean 11. postuan dago (345. lekuan, EBn).

Bestalde, CIE Automotibek gorakada handia izan du; 11,5 milioi gastatu ditu, hots, 2007an baino %100 baino gehiago. Azkenik, lehen azaldu bezala, CAF aurten estreinatuta ranking honetan; talde honek izandako igoera handienetarikoa izan da, %650koa, hain zuzen ere.

## SPRIk aurten ere Aldatu programa martxan jarri du

Eusko Jauriaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo saiak, Spri erakunde publikoarekin batera, "Aldatu" Berrikuntza Bikaineko Programaren beste edizio bat jarri du martxan. Honen bidez, laguntzak ematen zaizkie enpresei berrikuntza proiektuak burutuzeko xedearekin; dirulaguntza horiek berrorientazio estrategikoan, merkatuan, antolakuntzan eta kultura berritzailearen sustapenean bideratzeko.

Proiektu honen helburua da ETEen arteko lehiakortasuna areagotzea eta berrikuntzari garrantzi handiagoa ematea, enpresa hauek mekatuan presenten egon ditzaten.

### Aldatu Berrikuntza Bikaineko Programa

Aldatu programari dagokionez, eskaerak aurkezteko epea abenduaren 30era arte egongo da zabalik; betiere, aurrekontua arinago amaitzen ez den bitartean. Honi esker, berrorientazio estrategikoaren bidez aldaketa esanguratsuak bilatu nahi dira, besteak beste. Dena dela, bertan ere mer-

katuko berrikuntzan, enpresak merkatuan daukan presentzia aldatzeko ekin-tzak sartzen dira.

Ildo berari jarraituz, urte honetan zehar, Spriren aurreikuspenen arabera,

**Helburua da ETEen arteko lehiakortasuna areagotzea**

ekimen hau garatuko duten euskal enpresek berrikuntzarekin zerikusia duten 250 proiektu eramango dute aurrera guztira. Gehienbat, ekimen honen onuradun aterako direnak hamar langile baino gehiago dituzten euskal ETEak izango dira.

Aldatu programa diseinatuzko abiapuntuz hartu dira 2009an zehar 461 enpresak aurkeztu dituzten 371 "Aldatu" proiektuetako esperientziak eta ondorioak. Ia 500 enpresa horietatik, %55 industriaren sektorekoak dira eta %29 zerbitzuen sektorekoak. Horietatik bakoitzak batez beste 22.373 euro jaso zituen.

## Europarentzako Energia Adimenduna programaren aurrekontua 104 milioi eurokoa da

Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) Europarentzako Energia Adimenduna programaren deialdi berriaren ezaugarri edo alderdi nagusiak aurkeztu ditu Bilboko Merkataritza Ganberan. Emaizta eta datu horiek antolatutako jardunaldi informatibo baten barruan aurkeztu dituzte, joan den urtean egin zuten bezala.

**EEEEk erakusketa dibulгатiboak antolatu dituzte Europako Astean**

Programaren helburua da energia-eraginkortasun, energia berritzaile eta energiaren dibertsifikazioari lotutako egitasmoen finantzazioa lortzea.

EEEEk, IDAEk eta Bartzelonako Diputazioko kideek programaz emandako in-



EEAren aurkezpena egin zuten bozeramaileek

formazioa entzuterako enpresa eta erakundeetako 70 ordezkari baino gehiago bertaratu dira. Diputazioko ordezkariak euren instituzioa garatutako eta programaren finantzaketa eskuratu zuen egitasmoaren nondik-norakoak azaldu dituzte, hain zuzen ere.

### Etorkizunera begira

Aurtengo aurreikuspenei dagokionez, Europarentzako Energia Adimenduna (EEA) programak 104 milioi euroko aurrekontua duela ezagutzera eman dute jardunaldiaren hizlariak. Kopuru oso horretatik 56 milioi enpresa eta erakundeentzako proiektuak finantza-

tzera bideratuko dira, programak energia aldetik dituen helburuak sustatu eta zabaltzeko lagungarriak izango diren proiektuak.

### Beste ekintzak

Europako Astea dela eta, EEEK Euskadiko hiru hiriburuetan, aldi berean, erakusketa dibulгатiboak antolatu zituen. Erakusketa horietan energiarekin zerikusia duten elementu desberdinak erakutsi ziren, haien artean: energia aprobetxatzeko hainbat teknologiarren inguruko informazioa eta tresnak, energia aurrezteko eta energia-eraginkortasuna hobetzeko aholkuak eta gomendioak.

# HILEKO GRAFIKOAK

## EAEko eraikuntzako kostuek gora egin dute urtarrilean



2010eko urtarrilean EAEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %1,3 igo zen aurreko hilaren aldean; halere, urte batetik besterako aldea negatiboa izan da, %0,1eko jaitsiera hain zuzen ere, Eustaten datuen arabera.

Bestalde, aurtengo urtarrilean, lan-eskuaren kostua %2 igo zen bitartean, lehengaien kostuek, berriz, %1,1eko gorakada jasan zuten.

Sektoreei begira, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean Petrolio-fintzea nabarmentzen da, %27,4ko igoerarekin. Berriz, prezio-murrizketei dagokienez, Energia elektrikoa eta gasa sektore azpimarragarrienak suertatu dira (%8,3ko beherakadarekin).

Iturria: EUSTAT

## Industriako jarduerak %4,8 behera egin du urtarrilean

EAEko industri produkzioa %4,8 murriztu da aurtengo urtarrilean 2009ko hil beraren aldean, Eustaten datuen arabera.

Sektoreen arabera, 2010eko lehenengo hilabeteko indizearen bilakaerak den-denen jaitsierak erakusten ditu, aurreko urtearekin alderatuz.


Abenduaren aldean, berriz, 2010eko urtarrileko hil arteko aldakuntza negatiboa izan da industri sektore handi guztietan, batez ere energian (%8,6).

Bestalde, lurralde historikoei dagokienez, abenduko Industrio Produkzioaren Idizearen urte arteko bilakaera baikorra izan da Araban, baina joera beherakorra izan du Gipuzkoan eta Bizkaian.



Iturria: EUSTAT

## Gipuzkoak berriro gaintitu du Europako I+Gko gastua



Lurralde guztien artean Gipuzkoak egin zuen ahaleginik handien I+G delakoari dagokienez, betiere BPGren arabera neurtuta. Gipuzkoako emaitza %2,23koa izan da, hau da, Europaren 27 kideko batzbestekoa (%1,90) baino altuagoa, joan den urtean Europaren zifra gaintitzea ere lortu zuen.

Aldiz, Bizkaiak %1,73ko gastua egin zuen eta Arabak %1,46koa; dena dela, Euskadiko hiru lurraldeek Espainiako datua gaintitzea lortu zuten, %1,35ekoa baita.

Beste alde batetik, aurreko urteetan bezala, ingeniartzaren eta teknologiaren diziplina zientifikoak eman zen gasturik handiena.

Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT

## Esportazioak %11,1 gutxitu ziren 2009ko laugarren hiruhilekoan

EAEko esportazioek %11,1eko beherapen nominala izan zuten joan den urteko azken hiruhilekoan, Eustatek luzatutako datuen arabera. Era berean, atzeriiko salmentak 3.963,7 milioi eurokoak izan ziren, baina aurreko urteko epe berean, aldiz, 4.458,4 milioi eurokoak izan ziren.

Oro har, Euskadiko esportazioek eta inportazioek Estatuekoek baino beherapen handiagoak izan zituzten. Estatuan, esportazioek %15,9 egin zuten behera, berriz, EAEn %26,6. Inportazioen kasuan antzekoa gertatu zen; oraingoan, Estatuan %26,2 jaitsi ziren eta EAEn %38,9.

Euskadiri begira, Gipuzkoa (%22) izan zen esportazioetan beherapen txikiena izan zuen lurraldea, bere atzetik Bizkaia (%25,5) eta azkenik Araba (%32,8).

Iturria: EUSTAT



## ERREPORTAJEA



Constan Dacosta, Eroskiko presidentea

# Eroski taldearen bilakaera negatiboa, krisia dela medio

*Eroskik ordaindu beharreko zorra epe laburrean ordaindu beharko du; horretaz gainera, zenbait mailegu pilatu ditu, 2014. urtean bueltatu beharrekoak. Gauzak horrela, Eroskik ordaintzetaren atzerapena lortu arren, ordaintzeko beharra izaten jarraiz du*

Eroskiren emaitzak ez dira baikorrerkiak izan, joan den urtearen itxieran zorrak izan ditu, baina berandu izan baino lehenago enpresak lortu du zorra arintzea, zorraren ordaintzeta atzeratu duelako. Epe motzera itzuli behar zituen hainbat mailegu pilatu, 1.705 milioi euroko mailegu bakar batean bildu eta 2014ko urtarrierako bueltatu beharko du.

Dena dela, atzerapenez gain, luzerako zor izatera pasa du "kontratu arrazoiengatik", epe laburreko zor bezala jasota baitzegoen 790 milioi euroko mailegua.

la urtebeteko negoziazioen ostean akordioa lortu du 23 finantza erakunderekin, eta zor gehiena mailegu bakar batean bildu du.

**Zorraren kopurua eta joan-etorria**

Gauzak horrela, Eroskik zorra atzeratzea lortu zuen 2008ko amaieran, baina horrek ez du esan nahi zorra desagertu denik. Beraz, zorra 2.495,22

milioi eurokoa zen uztailearen 31an, Balio Merkatuaren Espainiako Batzordearen arabera (CNMV). Zati handiena epe laburrean ordaindu beharrekoa baitzen.

**Zorra, duela urtebete, 2.495,22 milioi eurokoa zen**

Hortaz, Eroski taldeak hilabete luzeetako negoziazioaren ostean lortu du epe motzerako zorra atzeratzea.

**Emaitzak eta etorkizuna**

2008ko emaitzak Eroskiren bidearen islada izan dela esan genezake, taldeak 97 milioi euro galdu zituen, eta horietatik 88,8 milioi euro bigarren erdian, hots, 2008ko bigarren sei hilekoan krisia askoz nabaria goa izan zen gizartearentzat orokorrean, eta zehazki, Eroski taldearentzat. Urteko lehenengo

erdialdea positiboagoa izan arren, 2008a galerekin amaitu zuen. Bestalde, Eroski Kooperatibek (hipermerkatuak eta supermerkatuak) 208 milioi euroren irabaziak izan zituela azpimarratu behar da.

Hori dela eta, Constan Dacosta Eroskiko presidentek baieztatu du atzerapenez gain neurri gehiago hartu beharko dituztela zorra txikitzeko. Beraz, Eroskiko arduradunek erabaki zail eta konplikatu hartu dute, hain zuzen ere, taldeko hainbat saltoki handi, denda eta logistika zentro saltzea. Izan ere, kasu batzuetan, nahiz eta saltokia saldu, bertan jarraitzen du, errenta hartuta.

Aldiz, beste hainbat salmenta atzeratu egin behar izan ditu. Krisialdia nabaria izan da Eroski taldean eta langileek ere nabari izan dute (kooperatiba izanik oraindik arrazoi gehiagorekin). Horregatik, erosteko interesa dutenek dirua lortzeko zailtasunak dituzte dota jasotzen dituen eskaintzak oso apalak izaten ohi dira.



Ruiz de Alegria 2002. urtetik da Ibermaticaren buru

## Capraboko erosketak: okerra ala zuzena?

2007an Eroskik Caprabo supermerkatuak erosi zituenetik, eztabaida izugarria sortu da guzti honen inguruan; positiboa izan al da kudeaketa hori euskal enpresarako? Galdera honen erantzuna ezinezkoa da objektiboa izatea, baina Eroskiko presidentek badirudi ez duela oso argi bere iritzia. Alde batetik, Dacostak onartu zuen ez zutela Caprabo erosi krisiaren berri izanez gero, hain zuzen ere bere hitzak izan ziren: "ez genekien krisia zetorrenik. Aurretik jakingo bagenu, atzera egingo genuke". Bestalde, presidenteak kitaldi berean guztiz kontrako ere adierazi zuen, "krisiaren beldurragatik Caprabo ez erostea erabaki txarra izango zen. Asmatu dugu", gaineratu zuen Dacostak.

**"Caprabo ez erostea erabaki txarra izango zen", dio Dacostak**

Dena dela, egia da zorraren zati handiena Caprabo erosi izanak eragin duela. Eroskik duela hiru urte aurrera eramandako erosketak 1.125 milioi euroren truke egin zuen, supermerkatuaren %75 bereganatuz. Helburua taldearen zabalkunde eta merkatua handitzea zen, batez ere Katalunian eta Madrilan.

**Irabaziak eta galerak**

Kateen arteko lehiak banaketa enpresak prezioak murriztera behartu ditu, irabazi tarteak txikituz. Eroskik zehaztu du aurtengo lehen erdian bere bezeroek 97 milioi euro aurreztu dituztela prezioetan egindako beherapenei esker.

Hortaz, Eroski taldearentzat inbertsio urteak izan dira, dendak berritu eta berrantolatu egin baititu, bai bereak, bai Capraboren eskutik jasotako 500 dendak ere. Hau da, 2008an zabalduetako dendei dagokienez, 164 saltoki izan ziren, inoiz baino gehiago.



Eroskik Capraboren zati handia erosi zuen 2007an



## ERREPORTAJEA

# Euskal kontsumitzaileen konfiantzak behera egin du 2010eko lehen hiruhilekoan

*Politikariek garrantzi handia ematen diote itxurari, baina, azken aldi honetan, ekonomia ahularekin eta azaltzen diren porrot ugariekin, oso zaila da izen ona mantentzea. Hori guztia biztanleen eta kontsumitzaileen konfiantzan islatzen da, eta, dirudenez, Euskadiko eta Nafarroako Aurrezki Kutxen Federazioak egindako inkestaren arabera, euskal kontsumitzaileen mesfidantza gero eta handiagoa da.*

Euskal Herriko biztanleok gero eta mesfidatiago bihurtzen ari gara; gehienbat, hau guztia krisialdiaren hazkunderekin hasi zen, hots, euskal kontsumitzaileen mesfidantzak gora egin du egoera ekonomikoa hazi den heinean. Dena dela, egoera horrek bere alde positiboa ere badu: dirua aurrezteko dohaina azaleratu da eta, adituen ustez, hori onuragarria izan daiteke gizartearen etorkizunerako.

Krisiari dagokionez, euskaldunok gehien arduratzen gaituen gaia langabeziarena da; izan ere, aurtengo lehenengo hiruhilekoan, berriz ere egin du gora, 2009ko azken hiruhilekoarekin konparatuta, behintzat. Ondorio hauetara ailegatu den taldea Euskadiko eta Nafarroako Aurrezki Kutxen Federazioa izan da, Kontsumitzaileen Koituntura-Inkestaren bidez. Txosten horretan, argi ikusten da euskal


kontsumitzaileen konfiantzak hamabi puntu egin duela behera aurtengo lehen hiruhilekoan, aurreko datuekin konparatuta.

BBK, Kutxa, Caja Vital eta CAN izan dira inkesta edo txostena egin duten entitateak; hain zuzen ere, erakunde horiek dira aurrezki inkestaren datuak osatzen duten taldeak.

## Kontsumitzaileen konfiantzaren gorabeherak

Lehen esan bezala, aurtengo aurreneko hiruhilekoan, euskal kontsumitzaileen konfiantza-indizea 81 puntutan kokatu da. Horrek esan nahi du hamabi puntuko uzkurdura izan duela aurreko hiruhilekoarekin alderatuz.

Gauzak horrela, Euskal Herriko indizea Espainiako eta EBko datuetatik (84 eta 87, hurrenez hurren) nahiko hurbil dago. Emaitez-



Euskal kontsumitzaileen konfiantza-indizearen grafikoa

tan, orokorrean, atzerantz egin arren, ikus daiteke euskal kontsumitzaileen konfiantza-indizeak susperraldirako joera arinari eusten diola.

Hala ere, neurri txikiagoan, euskal kontsumitzaileek etorkizuneari aurrezteko izango duten gaitasunari dagokionez, atzera egin dute (9 puntu, hain zuzen ere).

Aldiz, ekonomia orokorraren kasuan, langabeziari

eta etxeko ekonomiari buruzko itxaropenei dagozkien adierazleek susperraldirako joera arin hori eutsi diote, indize orokorrak bezala.

## Europaren ikuspuntua

Europako Batzordeak %0,7 berretsi du euroguneko BPG-ren hazkunde-aurreikuspen moduan 2010. urterako, eta datu horrek alde nabarmenak erakusten ditu herrialde kideen artean: herrialde horietako batzuek, eta Espainia horien artean dago, hazkunde-tasa negatiboak iragarri dituzte.

**Kontsumitzaileen konfiantzak 12 puntuko uzkurdura izan du**

beraz, langabeziaren ebo-luzioari buruz duten ikuspuntuan.

## Langabeziaren hazkunde kezkarria

Euskal kontsumitzaileek oso argi dute zein den gehien kezkatzen dituen gaia; langabezia, hain zuzen ere. Gainera, otsaileko datuen arabera, langabeziak gora egiten jarraitzen du Euskal Herrian; otsailean aurreko hilabetean baino 2.018 lagun gehiago zeuden lanik gabe. Hori horrela, gaur egun 180.913 pertsona inguru daude langabezian.

Lurrealde Historikoei begira, Bizkaian 946 lagun gehiago zeuden lanik gabe, Gipuzkoan 549 gehiago eta Araban 39 gutxiago.

Gaiarekin jarraituz, EAEn erregistratutako langabezia 137.143 pertso-

nakoa izan da otsailean, urtebete lehenago baino %23 gehiago.

Berriz, biztanleria okupatua 951,2 mila pertsonakoa da, eta gora egin du (%0,4), bost hiruhilekoz jarraian atzera egin ostean. Hala eta guztiz ere, langabezia-tasa %8,7raino igo da, eta zifrak orekatuta daude gizonezkoen nahiz emakumezkoen artean. Eraginik handiena 16-24 urte arteko pertsonengan dauka.

Bestalde, egindako soldata-berrikuspenen kasuan, azken bost hiruhilekoetako beherantzko joeraren bidetik doa, prezioetan ere bilakaera horixe izan baita, KPIK erakusten duen bezala.



Ibexaren emaitza apalek eragina dute kontsumitzaileengan

## ERREPORTAJEA

Bestalde, inbertsio handiak egiteko probabilitate-indizeak eta aurreneko etxebizitzaren eta automobilaren azpi-osagaiek atzera egin dute berriro ere.

Izan ere, EAeko Lurralde Historikoen arabera, kontsumitzaileen konfiantza 77 puntukoa da Araban, eta 82koa, berriz, Gipuzkoa eta Bizkaian. Azken hiruhilekoetan lortutako datuak hobetu egin dira kasu guztietan. Ildo berari jarraituz, hiru lurraldeetan, kontsumitzaileek euren etxeko ekonomiaz duten pertzepzio hobea eta aurrezteko itxaropeni eusteak ekarri du hobekuntza hori, egoera ekonomiko orokorraren eta enpleguaren suspertzeari buruz dagoen itxaropen negatiboa konpentsatuz.

### Ibilgailuen salmentak

2010. urteko lehen hiruhilekoan, ibilgailuak eskuratzeari dagokion igurikimena oso maila apalean mantentzen da; gainera, atzera egin du berriz 2009ko azken hiruhilekoan aurrera egindakoaren maila be-  
rean. Laguntza-neurri publikoak eraginkorrak suertatu dira epe laburrean, baina ez dago batere argi

etorkizunean mantenduko diren ala ez.

Joan den urtean, guztira 44.012 ibilgailu matrikulatu ziren Euskadin, 2008an baino %1,8 gehiago. Gehienbat, iazko azken hilabeteetako joera-aldaketak ekarri du 2009ko urteko emaitza positiboa. Estatu mailan, ordea, hilabete horietan jasandako hobekuntza ez da nahikoa izan, eta joan den urtean matrikulazioek %17,8ko beherakada izan zuten.

Aurtengo lehenengo hilabetei dagokienez, urtarriko eta otsaileko hilabeteetan hain zuzen ere, matrikulazioa 6.847 ibilgailukoa izan da EAEn. Hortaz,

**Salmenta-  
indizeak gora  
egin du urte  
batetik bestera**

gorakada %32,9koa izan da iazko hilabete berarekin alderatuz gero, baina %27,6ko beherakada izan da 2008ko datuekin konparatuta. Txostenean nabarmentzen dute



Euskadiko kontsumitzaileen mesfidantzak gora egin du azken hilabeteetan

laguntza publikoek gai honetan izandako eragina, positiboa betiere.

### Merkatu txikiaren eta handiaren arteko aldea

Salmenten gaiari lotuta, azalera handien salmenta-indizeak urte arteko hazkunde positiboa erakusten du abenduan eta urtarrilean; 2009an, oro har, balio negatiboak izan zituen.

Eta, azkenik, nahiz eta txikizkako merkataritzaren indizeak beherakadari eutsi,

urte arteko aldaketa-tasa negatiboa izan da, %1,5ekoa hain zuzen ere, baina aurrekoak baino txikiagoa.

Euskadiko kontsumitzaileen ustez, prezioek ez dute gora egingo, aurreko hiruhilekoetan baino maila apalagoan baldin bada ere.

### Kontsumoari lotutako beste adierazle batzuk

Burtsarekin edo interes-tipoekin lotura duten adierazleek ere harremana dute kontsumitzaileen edo

erabiltzaileen konfiantza indizearekin. Adibidez, Euri-borraren erreferentzia tasa %1,22an egon zen otsailan, ia beherago egiteko marjinarik gabe. Horrek diruaren prezioan eragindako murrizketaren ondorioak kontsumitzaileengan islatzen hasi dira.

Bestalde, joan den urteko abenduan Ibex-35 indizea 11.940 puntura iritsi zen; otsaila itxi ondoren, aldir, Estatuko selektibo nagusiak 10.334 puntu lortu zituen.

## Jaurlaritzaren maileguak ez du laguntzen

Eusko Jaurlaritzak laguntza edo mailegu baten beharra izan du, "altxortegia hutsik baitago", Carlos Aguirre Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun sailburuak aitortu duenez; zehazki, 600 milioi euroko mailegua eskatzea onartu du gaur Gobernu Kontseiluak.

Honekin batera, euskal kontsumitzaileen (edo biztanleen, orokorrean) konfiantza murriztu egin da, eta instituzio nagusi batek dirua behar duela ikusiz gero, egoera larriaz ohartzin dira eta krisialdiaren ondorioak nabaritzen dituzte.

Jaurlaritzaren erabakiari dagokionez, azken aste hauetan hartutako erabakia ezohikoa da, aurretik gobernua inoiz ez duelako eskatu behar izan krediturik. Hala ere, Aguirreraren aburuz, "Euskadiko finantza egoera arrunta eta ona da". Beste alde batetik, maileguaren iraupena edo epea sei hilabetekoa da eta interes tasa aldatzeko da.

### Aguirreraren adierazpenak

Agurrik adierazi du administrazioek altxortegi arazoak arintzeko erabiltzen duten ohiko formu-

la dela, eta aipatutako kopuru hori aurtengo aurrekontuek baimendutako zorraren parte izango dela. Sailburuak iazko zerga-bilketan izandako jaitziera izugarria aipatu zuen, horrekin erabakia justifikatuz. Hain zuzen ere, 2009ko

aurrekontuak prestatzeko erabilitako diru kopurua baino %20 gutxiago bildu zuten.

Horretaz gainera, kontuan izan behar dugu aurten urtea ez dela oso ondo hasi, urtarrilean %17 jaitzi baitzen bilketa. Izan ere, hilabete horretan bildutako diru kopurua ez da oso adierazgarria; gauzak horrela, "urtearen hasiera gastu handiko tartea izan da", adierazi du Aguirrek.

### Iritzi kontrajarriak

Andoni Ortuzarrek, EAJko Bizkai Buru Batzarreko presidentea, Ekonomia eta Ogasun sailburuaren jokabidea kritikatu du; "governua peto itxura ematen ari da; EAJk badaki diruak egon behar duela", gaineratu du Ortuzarrek.

Halaber, Jaurlaritzaren jarduna kontrolatzeko osoko bilkuran, zerga sistema izan zuen



Agurrik baikor azaldu da maileguaren albistea eman ondoren

hizpide Patxi López lehendakariak. Bere ustez, fiskalitatearen helburu nagusiak «ongizatearen estatua iraunkor egitea» izan behar du. Erabakia hartu aurretik, Lópezek aitortu zuen Eusko Jaurlaritzak ezin duela zergei buruz alde bakarreko erabakirik hartu, eta eztabaida «lasai eta sakona» egiteko eskatu zien Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiei.

## ELKARRIZKETA

## ALBERTO GARCÍA ERAUZKIN

*Euskalteko aholkulari zuzendari orokorra*

*Euskaltel taldeak, Euskadiko enpresarik sendoenetarikoak, ez ditu modu larrian nabaritzen krisialdiaren ondorioak, edo hori adierazi du, behintzat, taldeko aholkulari zuzendari orokorra den Alberto García Erauzkinek. Erandioztarrak kargu bera dauka 2000. urtetik, eta Ekonomiaren KZrekin bildu da Euskalteko balantzearen eta aurreikuspenen inguruan hitz egiteko*



Euskaltelek 2009. urtean izandako emaitzei dagokienez, zein da egiten duzuen balantzea edo zein ondoriara iritsi zarete?

Emaitzak ez dira berdinak izan Euskaltelen eta sektorean orokorrean. 2009an, etekinei begira, gure sektoreak bilakaera negatiboa izan du (%7 eta %8 puntu arteko beherakada). Euskaltelen, berriz, datuak oparagoak izan dira: joan den urtean, taldeak bezero gehiago bildu ditu, etekinen egoera mantendu du eta emaitzak hobetu ditu. Beraz, modu honetan, euskal merkatuan lidergoa handitu ahal izan dugu.

Etorkizunari begira, zeintzuk dira Euskaltelen aurreikuspenak 2010. urterako? Eta zeintzuk dira entitatearen helburu nagusiak epe luzearako?

Ez da erraza iragarpenak zerrendatzea krisiaren eritimoa ezegonkorra dela ikusita, baina gure helburu orokorrak dira, betiko moduan, bezero kopurua gehitzen jarraitzea eta etekinak eta emaitzak hobetzea.

Epe luzeari dagokionez, gure nahia da esparru geografikoa handitzea eta beste merkatuetara iristea.

Krisialdi ekonomiko finantzarioan murgilduta gaudela kontuan hartuz, sektorearen lehiakortasuna gogorra al da momentu honetan?

Sektore honetako lehiakortasuna, bereziki, oso gogorra da, eta Euskaltelen kasuan, Euskadiko merkatuan ditugun lehiakideak lider mundialak dira. Horretaz gainera, sektorearen eskaintza berriak oso erakargarriak izaten dira, eta zaila da gainditzea;



García Erauzkin baikor agertzen da Euskaltelen emaitzekin

## “Zuntz optikoa Euskaltelek merkatuari eskaintzen dion sinbolorik adierazgarriena da”

horrek, beste faktore batzuen artean, zerbitzuaren prezioak murrizten ditu.

**“Euskaltelen desberdintzea sare teknologikoen aldeko apustua da”**

Zertan desberdintzen da Euskaltel gainerako telefono-operadoreetatik?

Euskaltelen desberdintasuna, hasieratik, sare teknolo-

gikoaren aldeko apustua izan da. Bestalde, zerbitzu berritzaile askoren integrazioan ere zentratu gara (telefonía finkoa, banda zabalak, telebista digitala, telefonía mugikorra eta abar).

Esan genezake enpresaren produktu izarra zuntz optikoa dela? Zeintzuk dira bere abantailak? Datozen urteetan ere Euskaltelen produktu nagusia izaten jarraituko du?

Zuntz optikoa Euskaltelek merkatuari eskaintzen dion sinbolorik adierazgarriena

da. Gainera, zalantzarik gabe, gure produktu izarra izaten jarraituko du, etorkizuneko zerbitzu berri askoren oinarria baita.

Hori dela eta, gure xedea da maila berean mantentzea eta zuntz optikoan inbertitzen segitzea, teknologikoki herrialde aurreratuen artean kokatu gaituen sarea baita. Gauzak horrela, 2009. urtea bukatu zenetik, Euskaltelek 285.000 kilometroko zuntz optikoa hedatu du EAE osoan.

Teknologiari dagokionez, zein izango da Euskalte-

len hurrengo erronka edo apustua?

Taldearen erronkarik esanguratsuena da gure bilakera eta garapena arrakastarekin jarraitu ahal izatea. Horretarako, lan izugarria egingo dugu sareen integrazioen errefortzuan, batez ere, Euskalteko bezeroei zerbitzu ezin hobea eskaintzeko eta edozein momentuan edota lekutan gure zerbitzuaz gozatzeko.

Vodafone taldearekin duela bi urte baino gehiago sinatutako itunaren inguruan, zeintzuk izan dira lortutako ondorioak eta emaitzak?

Akordio hori oso positiboa izan zela esango nuke, telefonía mugikorreko sarbideari dagokionez, Vodafone hornitzaile onenetakoa baita. Horren ondorioz, une honetan, Euskaltel Vodafonearen bezerorik garrantzitsuenetarikoa da Europa mailan.

Horregatik, gaur egun ez dugu arrazoirik beste aukerarik bilatzeko edo beste enpresaren batekin sarbide berria hitzartzeko.

Azkenik, Euskadin azken urte honetan izandako aldaketa politikoaren ondorioz, Euskaltel taldean, orohar, bestelako ekimen azpimarragarriren bat egin da?

Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoan telekomunikazio zerbitzu gehien kontsumitzen duen entitate edo instituzioa da; gainera, Euskaltelen bezeroa da duela 12 urte baino gehiago. Beraz, gobernu aldaketa dela medio, Euskaltelen eta Jaurlaritzaren arteko hainbat solaskide aldatu egin dira, baina harremanak oparoenak eta positiboak izaten jarraitzen du.

## ERREPORTAJEA



## Tobin zerga ezartzearen eztabaida bueltatu da

Tobin zerga 70. hamarkadan azaldutako metodoa da. Bere helburu nagusia kapitalaren nazioarteko mugimenduei ezartzea zen. Zerga honek bigarren plano batean egon da azken urte hauetan, baina krisialdiarekin batera behin gehiagotan egunerokotasuna lortu egin du. Ekonomilari eta politikari askok aplikazioaren alde egiten dute munduko ekonomia berpizteko xedearekin

Tobin zerga James Tobin ekonomilariak asmatutako edo sortutako kontzeptua da; zehazki, kapitalaren nazioarteko mugimenduei jartzea proposatutako zerga dela esan genezake. Estatu Batuek 1981eko Nobel sariduna izan zen, eta Tobinek bere ideia azaldu zuen Bretton Woods sistemaren eta urte erduaren amaiera ostean, kapitalaren mugimenduen gaineko kontrola desagertu baitzen. Ekonomilariaren xedea dibisen aldaketa bakoitzari zerga bat jartzea zen, diruaren truke, tasaren aldakortasuna gutxitzeko eta epe motzeko irabaziak nahi dituzten finantza mugimendu espekulatiboak zigortzeko.

Orokorrean, Tobinen aburuz, zergaren zenbatekoa %0,1 eta %0,25 artekoa izan behar zen operazio bakoitzeko.

### Europako Batzordearen erabakia

Nahiz eta hasiera batean Tobin zergaren aldarrikapena ezkerreko taldeekin lotura handia izan, urteak pasa ahala gero eta mugimendu gehiago batzen dira zerga honen ezarketaren alde altxatzeko. Egun, dibisen merkatuko trasakzioei %0,1eko zerga aplikatzeko eskaera egiten dutene ez dira soilik ezkerreko taldeak edo ordezkaria, baita ere eskuinaldean kokatzen diren politikari eta jarraitzaile askok zerga honen ezarketa eskatzen dute.

Gauzak horrela, munduko gobernuak babes neurriak

nahi dituzte etorkizuneko krisien ordainagiria herri-tarrek ez ordaintzeko. Hor-taz, Europako Batzordea,



James Tobin, zergaren sortzailea

Europako Batasunak eskatuta, finantzaketa modu berritzaileak ikertzen ari da, krisialdiari aurre egin ahal izateko, eta sistema berri horien artean Tobin zerga aurkitzen da, hau da, egun inoiz baino posibleagoa da indarrean jartzea. Bestalde, G20ak ere Nazioarteko Diru Funtzari (NDF) ere gauza bera eskatu egin dio.

**Zergaren zenbatekoa %0,1 eta %0,25 artekoa da**

Izan ere, Tobin zerga aplikatu aurretik beharrezkoa da adostasun politikoa batera ailegatzea eta alderdi politikoa nagusienak baiezkoa ematea; horretaz gain, ados ipini beharko litzateke beste kontu batzuetan ere: zenbateko zerga aplikatu, zein egoeratan,

nork jasoko duen dirua, e.a.

Duela hamar urte egin-dako kalkuluen arabera, urtean 166.000 milioi do-

lar bilduko lirarteke. Aldiz, Nazio Batuen Erakundeak urte batzuk lehenago egingakoen arabera, berriz, 720.000 milioi euro suposatuz.

### Irizki kontrajarriak

Europako Batzordearen kasuan, oro har, mundu osoan aplikatu beharreko zerga mota dela argi utzi dute, finantza merkatuak globalak direlako; gainera, soilik herrialde batzuetan aplikatuko balitz, finantza merkatuetako eragileak zergarik ez duten herrialdeetara joango lirarteke.

Halere, txanponaren bestaldean, NDFko buru den Dominique Strauss-Kahn ez dago batera ados zergaren ezarketarekin, bre aburuz, oso ideia zahartua da, "gaur egun indarrean jarri

ezin dena". Strauss-Kahnek baita ere esan zuen finantza industriarentzat oso erraza dela mota honetako zerga bat saihestea, "sektore oso berritzailea baita".

Dena dela, iritzirik harri-garriena ezaguzera eman duena lehen ministrari britainiar Gordon Brownena izan da. Denbora pasa ahala pentsaera aldatu du, eta hasieran ezezkoa eman arren, oraingoan lehen ministraria Tobin zergaren alde kokatu da. Berarekin batera, Frantziako gobernuak aldarrikapena bultzatu egin du, baina AEB eta Kanada ez dute bat egiten bi europar herrialde hauekin.



Gordon Brown, egun, Tobin zerga aldarrikatzen

### Zergaren eraldaketak eta aurrerapausuak

Tobin izeneko zergak hainbat eraldaketak izan ditu

1971. urtean sortu zene-tik. Hasierako helburua epe laburreko espekulazioa gelditzea zen, hots, bere xedea ez zen dirua irabaztea edo onura ekonomikoak lortzea; momentu horretatik aurrera, GKE askok ideia honen alde egin zuten eta haien helburuen artean zergarten aldarrikapena egon da, pobrezia aurka egiteko. Modu berean, globalizazioaren aurkako taldeek 1990eko hamarkadan zerga indarrean jartzeko eskatu zuten, herrialde pobreei laguntzeko eta klima aldaketari aurre egiteko xedearekin. Ildo berari ja-

rraituz, 1998an ATTAC sortu zen Frantzian.

Lehen esan bezala, gaur egun Brownen teoriaren alde egiten du eta etorkizuneari aurre egiteko bere lehen tasunaren artean sartu egin ditu.

Nahiz eta zergaren inguruko lehenengo berriak ia duela 40 urte atera, egungo egoera ekonomikoak eragin du Tobin zergari buruzko debata behin gehiagotan azaltzea. Gehienbat, krisi finantzarioak agerian utzi baitu finantza merkatuetako gehiegikeriak. Hori dela eta, zenbait eragile

Tobin zerga aplikatzeko eskatu dute, arriskuak agertzekotan ahalik eta lasterren neurri batean kontrolatzeko.

## TEKNOLOGIA

### Multifuntzionalak

Gaur egun inprimagailuak atzeratuak geratu dira eta gero eta gehiago erabiltzen diren tresnak multifuntzional izenekoak dira. Tramankulu hauei esker, tresna bakar batekin hiru funtzio edo akzio desberdin aurrera eramán ditzakegu, eskaneatzea, inprimatzea eta fotokopiatzea, hain zuzen ere. Bai lan eremuan, baita arlo pertsonalean ere, multifuntzionalak arrakasta izugarria izatn dute, gehienbat euren prezioak oso altuak ez direlako. Horregatik, gure oraingo proposamenak tresna honekin zerikusia du eta merkatuko merkeenak eta kalitate hobegokoak aukeratu ditugu.



Multifunción Samsung  
CLX-3175FN

Kolorezko laser  
Faxa  
Murrizte/Zabaltze: %25 - %400  
249 €

Multifunción Canon  
PIXMA MP640




Wi-Fi  
5 tinten ziztada  
DVD/CD  
199 €



Multifunción  
Brother  
MFC-5490CN

Errotulatzeko makina  
Fax  
Murrizte/Zabaltze: %25 - %400  
139 €

## ARDOAK



### Rueda ardoak

Rueda jatorri-izena duen ardoa Gaztela eta Leongoa da; espezialitatea ardo zuriak dira, nahiz eta 2008. urtetik aurrera ardo gorri eta beltzak ere ofizialki ekoitzi. Rueda deituriko ardoa 72 udalerritan lantzen da; horietariko 53 Valladolideko probintziaren hegoaldean daude, eta gainerakoak, berriz, Ávilan eta batez ere Segovian. Bestalde, Verdejo izeneko mahatsa da Rueda ardoen elementu nagusia.



Palacio de  
Bornos

MAHATSAK:  
SAUVIGNON  
BLANC

PRIMERAN DOA:  
GAZTA ETA  
PIPERREKIN

PREZIOA: 7 €



El Perro  
Verde

MAHATSAK:  
VERDEJO

PRIMERAN DOA:  
ARRAINAREKIN

PREZIOA: 8 €



Finca La  
Colina

MAHATSAK:  
VERDEJO

PRIMERAN DOA:  
ENTZALADA ETA  
GAZTEKIN

PREZIOA: 9 €

## JATETXEA



Zarautzen dagoen ostatua da; Txiki polit du izena eta Musika Plazan dago. Gainera, hondartza oso gertu dago, 100 metrora. Bestalde, bertako jantokiak 200 lagunentzako tokia du. Dena dela, jatetxea ez ezik, Txiki politek pentsioa edota taberna ere baditu. Janariari dagokionez, Txiki polit jatetxean

kalitate bikaineko platerak eta zerbitzua aurkituko ditugu, poltsiko guztietarako modukoak; izan ere, 20 eurotik 50 eurora bitarteko menuak daude Zarauzko jatetxe honetan. Adibide bezala, tarteko menu bat aukeratu dugu:

### Txiki polit

Jatetxea

Menua - 35 €

Gulen entsalada  
Onddo-nahaskia  
Txipiroiak plantxan  
Zapoa edo txuletoia  
(aukeran)

Postrea eta ura edo ardoa

Harremanetarako datuak:

TXIKI POLIT PENTSIOA  
MUSIKA PLAZA Z/G  
20800-ZARAUZ  
(GIPUZKOA)

TEL.: 943-835357  
<http://txikipolit.com>

# AISSIALDIA

## Estresari aurre egiteko hileko proposamena

### Andorra: eski eta spa

Eskiatzeko garaia bukatzeaz dago, horregatik gomen-dagarria da egun hauek aprobetxatzea eta lehen bait lehen etxetik gertu dagoen eski pista batera hurbiltzea. Gure proposamena oso urrun ez dagoen toki ezinhobea da, batez ere, eskiatzeko orduan jendeak askotan aukeratzen duen helmuga baita, Andorrari buruz hitzegiten ari gara, Vallnordeko eski-estazioaren inguruan hain zuzen ere.

Horrez gainera, Vallnordeko webguneari esker beste eskaintza erakargarria izan dezakegu, hots, egun oso bat Vallnordeko eski-estazioan eta gonbidapen bat

(edozein egunerako) Andorrako Caldea spa berrian ordu erlaxagarri batzuk pasatzeko.

Caldea hotel berri eta dotorea da, non lasaitasun izugarria aurkitu dezakezun, horretarako hainbat zerbitzu bikainak egon badaude: islandiar eta turkiar bainuak, jacuzziak, Sirocco, aintzira termalak (barrualdean eta kanpoaldean), sauna, e.a. Bestalde, Vallnordeko eski-estazioak ez da atzean geratzen, 67 pista dituen lurralde honek (haietarik 13 berdeak, 23 urdinak, 25 gorriak eta 6 beltzak) azalera handiko lekua da, eta bertan 53.410 pertsona sartzen dira orduero.



# LAN ESKAINTZAK

**LIBURU-DENDA SALTZAILEA**  
liburu-denda saltzailea (Bilbon). Euskera (EGA), lanetan esperientzia izatea eta Bilbon edo inguruan bizitzea beharrezkoa da. Kontratuaren iraupena: 6 hilabete. Lanaldi-mota: goiz eta arratsaldekoa.

**UDALEKUEN KUDEAKETA TEKNIKARIA**  
Enpresaren hasierako udaleku kudeaketa eramateko. Ezinbesteko baldintzak euskera. Baloratu beharreko baldintzak magisteritza edo udaleku zuzendaria. Herria: abaltzisketa inguruan. Kontratu mota epe baterako urri-rarte (luztu daiteke). Jornada osoa. Hileko soldata fordin gutxi forabehera 800 euro.

**ILEAPAINZAILEA**  
Ileapaintzailea, postuari dagoz-kion lanak egitea tintatu, lehortu, moztu .... Ezinbesteko baldintzak euskera jakitea, esperientzia izatea alor honetan eta Tolosaldea eskualdekoa izatea. 30 orduko lan kontratua asteen. Astelehenetatik ostegunetara 09:00tik 13:00 tara eta larunbatetan 08:00tik 13:00tara. Berehala hasteko

**LANPOSTUAREN UDALERRIA(1):**  
Haur eta gazteen AISIALDIRAKO HEZITZAILEAK  
Irungo udaleku irekietan lan egiteko, 80 HEZITZAILE uztailan eta 40 abuztuan behar dira. **BETEBAHARREKOAK:** haur eta gazteen aisialdian begirale titulua edo hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak, amaitutakoak edo amaitugabeak edo/eta esperientzia; eta euskara maila izatea. **ESKAINTZA:** 639euro-ko soldata garbia hezitzaileek eta 708 euro koordinatzaileek. **Ordutegia:** 9,15-tik 13:30-etara; astelehenetik-ostiralera. **IZEN EMATEKO EPEA:** martxoaren 26ra arte.

**TURISMO BULEGOKO ARDURADUNA**  
Loiolako turismo bulegoko arreta zerbitzuaren arduraduna (bulegoaren harrera, informazio eta gestio arduraduna). Turismo diplomatua, lanbide heziketako turismo arloko ikasketak edota hizkuntzekin loturiko ikasketak izatea. Euskara menperatzea, eta frantsez zein ingeleraz komunikatzeko gaitasuna. Eskualdeko zerbitzu sare eta baliabide turistikoaren ezagupena. Eskualdean bizitzea baloratu da. Lan-eskarmetua sektorean edo jende aurreko lanetan. Martxoaren 26tik, hilabeteko kontratua (agian bi hilabete).

**KUDEATZAILEA**  
Eskualdeko komunikazio enpresa bateko kudeaketaz eta eragileekin izan beharreko harremanetaz arduratzea (Gernika eta Bermeo). \*Ezinbesteko baldintzak; kudeaketa-administrazio arloko ezagutzak edukitzea. Euskara maila ona, eskualdekoa izan edo eskualdea ongi ezagutzea. Izaera dinamikoa, harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna izatea. \*baloratu beharreko baldintzak; antzeko lanetan eskarmetua izatea, gida baimena eta autoa izatea. \*Aldi baterako lan kontratua eta lanaldi osoa.

**SERVICIO DOMESTICO**  
Funciones: Emakume Euskalduna behar da etxe batean lan egiteko. **IRUNEN, 6 ORDU EGUNEAN.**

Lan eskaintza gehiago Lanbide.net Euskal enplegu zerbitzuko webgunean.

# EKONOMIA HIZTEGIA

EUSKARAZ / GAZTELERAZ / INGELERAZ

- SARBIDE = ACCESO = ACCESS
- MOTELDU = AMORTIGUAR = TO CUSHION
- BOSERAMAILE = PORTAVOZ = SPOKESPERSON
- DEUSEZTATU = ANULAR = TO CANCEL
- SAKON = PROFUNDO = DEEP
- ERAGOZPEN = IMPEDIMENTO = OBSTACLE
- SOROSPEN = AUXILIO = HELP
- ZABALKUNDE = DIFUSIÓN = DIFFUSION
- BERRANTOLATU = REORGANIZAR = TO REORGANIZE
- MESFIDANTZA = DESCONFIANZA = DISTRUST
- EUTSI = ASIR = TO SEIZE
- ALTXORTEGI = TESORERÍA = TREASURY
- ZUNTZ OPTIKO = FIBRA ÓPTICA = FIBRE OPTICS
- GEHIEGIKERIA = EXCESO = EXCESS
- ADIMENDUN = INTELIGENTE = INTELLIGENT
- GOGOETA = PENSAMIENTO = THOUGHT

# SUDOKU

Buruari gogor eutsi eta ebatzi sudoku hau

	3	7					4	
	1			7				
	8		1			7		6
				5	8			
			4	3				9
					7			4
	4			1		9		7
	2	8						
5					2	4		1


ERANTZUNAK

Zenbat denbora eman duzu sudokua ebazteko? Hona hemen erantzunak.

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

BISITA GAITZAZU GURE BLOGEAN!  
ekonomiarenkz.wordpress.com

Albiste berriak egunero eta adituaren iritzia



**HARREMANETARAKO TELEFONOA:**  
94 421 30 31  
**WEBGUNA:** www.ekonomiarenkz.eu  
**E-MAILA:** info@ekonomiarenkz.eu  
**POSTA HELBIDEA:** 612 Posta Kutxatila,  
48080 Bilbo  
**EUSKARAREN ARDURADUNA:**  
Labayru Ikastegia  
**EGILEA:** Leizaola Elkarte  
**HARPIDETZAK:** 94 421 30 31 telefonon.



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Ekintza honek Bizkaiko Foru  
Aldundiaaren Kultura Sailaren  
laguntza jaso du.


# €konomiarenKZ

## Euskal Ekonomiaren Kazeta

2010eko Apirila

## MARKEL OLANO

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusia



Eusko Jaurlaritzako azkeneko bi lehendakariak eza-gutu dituzue eta bien agintaldian lan egin duzue; ildo berari jarraituz, ekonomia arloan, zeintzuk izan dira nabari dituzun aldaketarik esanguratsuenak?

Erakunde arteko lankidetzak dela eta, nola Ibarretxeri hala Lópezi eskaintza irmoa eta zintzoa egin diegu, Gipuzkoarentzat eta Euskadirentzat gako diren gaie-tan. Zehatzago esanda: gobernu berria jakitun da, behin baino gehiagotan adierazi diogun bezala, krisi ekonomikoari dagokionez gu prest gaudela, ditugun desberdintasun politikoak direnak izan arren, lana partekatzera, talde lana egitera eta erakunde arteko lankidetzak ahalik eta gehien jorratzera.

Krisialdi ekonomikoari dagokionez, kezka nagusietako bat izan da ogasunek diru gutxiago bildu dutela. Zergatik izan da txikiagoa zerga-bilketa, batez ere Gipuzkoan?

Zerga-bilketak behera egin zuen izugarri 2009. urtean, hain zuzen ere, %17 jaitsi ziren gure diru-sarrerak. Honen arrazoia, begi bistan da, krisiak enpresen jardueran izan duen eragina izan da.

Zerga politikari dagokionean, egungo egoerak eskatzen duen malgutasuna erakutsi dugu, eta, horretarako, erraztasunak eskaini dizkiegu familiei eta enpresei. Pertsona fisikoaren gaineko zergak bigundu egin ditugu familien likidezari laguntzeko eta Sozietateen gaineko zergaren ordainketan atzerapenak edo luzapenak baimendu ditugu, enpresen kaudimena ito ez dadin.

2009. urtea oso negatiboa izan da langabeziari dagokionez; zeintzuk dira Gipuzkoako Aldundian egiten dituzuen aurreikuspenak urte honetarako gai honen inguruan?

*Markel Olanorekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ahaldu Nagusiarekin, harremanetan jarri gara bere Aldundian momentu honetan bizitzen ari den egoerari buruz mintzatzeko. Dirudienez, krisialdiak Gipuzkoan ez du beste lurraldeetan bezain gogor jo, baina bere ondorioak ere izan ditu. Olanok ondorio eta arazo bakoitzaren inguruan hitzegin du elkarrizketan zehar*

## “Espainiako ziklo aldaketa atzeratu egingo da eta horrek gure ekonomiarengan eragina izango du”

2009. urteko azkeneko bi-hiru hilabeteetan, gure hazkundeak, nahiz eta maila oso txikian, emaitza positiboak eman ditu Gipuzkoan. Honekin batera, badi-rudi Europako ekonomia nagusietan ere zer edo zer mugitzen hasi dela, eta per-

Maneiatzen ditugun tsetinguru ekonomikoaren arabera, urte honetan hazkunde maila motela izango dugu, eta, zoritxarrez, langabezia tasak gizentzen joango dira.

Bestalde, Donostiako metro egiteko ideia zein fa-

setan dago? Beharrezkoa al da azpiegitura hori gauzatzeko hiriburuan?

Esanenezake lehenengo urratsetan gaudela. Eskuduntza Eusko Jaurlaritzarena da, eta berak adierazi du martxan jarriko dituela iker-

Askok kritikatu dute krisi garaian azpiegitura ugari-tan dirua xahutzea, metroa, Hondarribiko aire-portua edo AHT, besteak beste. Garai honetan, lehen-tasuna al dute obra hauek beste kontu batzuen aurrean?



García Erauzkin baikor agertzen da Euskatelen emaitzekin

tzepzio hori guztiz garrantzitsua da gure ekonomiaren garapeneren hasierarako. Dena dela, oso kontuan hartu behar dugu, aurreikuspen guztien arabera, Espainiako ziklo aldaketa atzeratu egingo dela eta horrek gure ekonomiarengan ere eragina izango duela 2010. urteari begira.

“Aurten hazkunde maila motela izango dugu”

ketak Donostiak metro zerbitzua izateko. Gogoan izan Gipuzkoako biztanleria guztien %60 eskualde honetan bizi dela. Mugikortasuna tren sarea egokituz eta bikoituz eta zerbitzu eta maiztasunak ugartuz bermatu liteke, metro batek eskaini dezakeen gisa.

Gipuzkoaren aberastasuna, neurri handi batean, bere industriaren oinarritzen da. Egiten eta sortzen duguna ahalik eta azkarren munduko beste puntara helarazteko gai izango diren bitarteko eta azpiegiturak behar ditugu. Ezinbestekoa da, etorkizunaren aldeko apustua egin nahi badugu.

Diputazioak argi ditu bere lehen-tasunak, eta horrela bildu ditugu “2010 Krisiaren Aurkako Gipuzkoako Plana” egitasmoan.

Azkenik, zer deritzozu Gipuzkoako errepide nagusietan bidesariak jartzeari?

Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio Batzar Nagusien eztabaidako ondorioak foru arau batean garatzea. Noski, Batzar Nagusien ebazpena osatzen duten oinarri erantzun-gu die foru arauaren edukiak: gure bide sarean aplikatzea ingurumen iraunkortasunaren printzipioak, Gipuzkoaren lurralde oreka sustatzea eta gai honi dagokionez Europako Batasunetik datozen joera berrietara egokitzea.